

TTAKUN (H)ERRENKA

Ñabardura

E

Taren komunikatua atera zeneko esperientzia pertsonala kontatzen hasteko berandu nabil beharbada, baina, Jose Luisek dioen eran, nik ere gaiaz hitz egiteko obligazioa sentitzen dut, zuen ildoari jarraitzeko besterik ez bada, eta ez zait hasteko beste modu bat bururatzen, eta itzultzeko ere puntu egokia iruditzen zait gainera, esango dut zergatik.

Aterakoomendu momentuan Beñatek aipatzen zuen indiferentzia gailendu zitzaidan, gaiak sortzen didan alferkeria neurekoia dela eta ziurrenik; berria baieztatu zenean ordea, pozten hasi nintzen logaritmikoki hazten zen intentsitatez, mendebaldean zailki lor daitekeen emozio kolektiboan murgilduz berriro ere, ETari esker. Minutu gutxi behar izan nituen baina Jose Luisek aipaturiko isiltasun horretara iristeko, eta noski, triste jarri nintzen, eta bat-batean konparatu nuen ardo beltzak beste zentzu bat hartu zuen. Euskal Herritik kanpora, nik bezala egongelan irla egin zuen lagunari mezuak bidaliz, batere heroikoa ez zen egoera maniako depresibo batean sartu ginen pozetik tristurara, barretik malkoren batera ginderamatzana; beste lagun bat etxean sartu zenean eta irratia, telebista eta ordenagailua martxan, ardoa edanez eta lurrean eserita ikusi ninduenan esan zuen; *“perturbador”*. Eta kasik bota egin nuen etxetik gaiari jartzen zion arrazionaltasuna zela eta; Beñat, aipatzen zenuen sufrimendu borroka horretatik dezente urrun, Madrilgo pare bat etxetan behintzat, tristuraren nola-baiteko liberazioa ospatzen amaitu genuen. Arrazionalizatzen eta justifikatzen, kokatzen, neurtzen zail diren agenteetako bat desagertzen zen, eta kulpaa, amorru, damu, beldur, oroitzapen... sorta bat libreago sentitu genituen.

Gero hauteskunde propagandak jarraitu du, Espainia mailan, Euskal Herri mailan,

DANI BLANCO



Ixene Apaolaza



Padrón



Sarasola

bozka asko espero duena sigla lausotu eta destino kolektiboari aldarrika, siglari distira atera nahiz inkestek gehiago kolpatu dituztenak. Zabarki ordezkatzeko gaituzte partiduek, ezin du kolektiboari ari zaionak biografia bakoitzaren ñabarduraz aritu. Etorkizuna da itxaropenak eskatzen duena baina iragana

da berez izendatzen dena, Amaiurrek izenean berean darama, Iñigo Urkullu foruen abolizioaz aritu zen, eta PSOEtik beren siglen bizitzaluzera zekarten (eta Alfonso Guerra eta Felipe Gonzalez *Dos Hermanasen!*). Eta zenbaitek seinalatu duen eran, segituan hasi ziren dagokigun gaiari dagokionean (zein da gaia berez?), *relatoaz*; zer kontatu nahi dute orain bat batean, eta hain atzera begira, etorkizungileek.

Agian pozik behar genuke narraziozileok, gutxitan iragartzen baita gainera datorkiguna hain argi, gutxitan da errazago konprometitua izatea apurtu beharreko narrazio ñabardura ukatzaileak hain garbi emango zaizkigunean baino; hauteskunde ondoren ikusiko dugu partidu bakoitzak zenbat botere izango duen, dagoeneko inkestek pista batzuk ematen dituzte, Espainia mailan, Euskal Herri mailan, bere narrazioa destino kolektibo bihurtzeko. Ea horrez gain praktikoak izaten asmatzen duten eta denon doluari, kontaketari, arnasa ematen zaion. Eta horregatik nioen hasieran itzultzearena, komunikatu

ondorengo minutu horietara, zeinetan kontraesanek sentitu genuen, gerora laster hasi diren norabide bakarrek horien aurretik, bakoitzarena baino ez zen intimitate batean. Ukazioak eta ahanzturak ez du baretzen, orain mina, besterik ez denean, aurrez aurre begiratu behar genuke, bakoitza bere kontraesan eta zikoizkeriaz, orain, ondorio itzulezirik izango ez dutenean. ■



Agian pozik behar genuke narraziozileok,
gutxitan iragartzen baita gainera datorkiguna
hain argi, gutxitan da errazago konprometitua
izatea apurtu beharreko narrazio ñabardura
ukatzaileak hain garbi emango
zaizkigunean baino